


**GRADU AMAIERAKO LANA
LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**IDAZKETA-IRAKURKETARAKO BALIABIDE
DESBERDINAK BILATZEN**

Hezkuntza eta kirol fakultatea

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Maiatza 2021

**Autorea: Ariane García Montoya
Zuzendaria: Paloma Rodríguez Miñambres**

LABURPENA

Hezkuntzaren helburuetako bat ikasleak alfabetatzea eta hezte da, eta horretarako beharrezkoa da irakurketa-idazketa irakasteko eta ikasteko prozesu on batekin hastea.

Bai idazketa bai irakurketa, hezkuntzan kontuan hartu beharreko bi esparru dira, oso konplexuak baitira. Idazketaren eta irakurketaren irakaskuntza-ikaskuntzan laguntzen diguten metodo eta teoria asko izan arren, oraindik ere zailtasunak daude irakasteko, eta, batez ere, irakasleek gai horren garrantziari buruz informazio gutxi ezagutzen dute.

Prozesu hori lortzeko, beharrezkoa da irakasleak etengabe harremanetan egotea irakurketa-idazketako teoria eta metodologiekin, ikasleei hobekien egokitzen zaizkienak aplikatu ahal izateko. Gradu amaierako lan honetan prozesu hori martxan jartzeko metodo desberdinak aztertzen dira eta garrantzi berezia ematen zaio metodo konstruktibistari, bereziki, Doman Metodoari.

Lan honen bidez laguntza eman nahi zaio goiztiarreko irakurketa-idazketaren ikaskuntzari eta helburu bat lortzeko (ikasleak dibertitzea eta motibatzea, ikasten duten bitartean) metodorik egokiena zein den zalantzak argitzeko.

Hitz gakoak

Idazketa, irakurketa, irakurketa- idazketa, Doman Metodoa, metodo silabikoa, metodo alfabetikoa, metodo fonetiko- fonikoa.

RESUMEN

Uno de los objetivos de la educación es la alfabetización y educación del alumnado, para lo que es necesario iniciar un buen proceso de enseñanza y aprendizaje de la lecto-escritura.

Tanto la escritura, como la lectura, son dos ámbitos a tener en cuenta en la educación por su complejidad. A pesar de haber numerosos métodos y teorías que nos ayudan en la enseñanza-aprendizaje de la escritura y la lectura, todavía existen dificultades para la enseñanza y, sobre todo, el profesorado conoce poco sobre la importancia de este tema.

Para la consecución de este proceso es necesario que el profesorado esté en contacto continuo con las teorías y metodologías de la lecto-escritura para poder aplicar las que mejor se adapten al alumnado. En este trabajo de fin de grado se estudian diferentes métodos para poner en marcha este proceso, dando especial importancia al método constructivista, concretamente, al Metodo Doman.

Con este trabajo se pretende aclarar las dudas sobre el aprendizaje de la lecto-escritura temprana y sobre cuál es el método más adecuado para lograr divertir y motivar al alumnado mientras aprenden.

Palabras clave

Lectura, escritura, lectoescritura, metodo Doman, método silábico, método alfabético, método fónico- fonético.

AURKIBIDEA

LABURPENA	1
1. SARRERA	3
2. JUSTIFIKAZIOA	3
3. HELBURUAK	5
4. MARKO TEORIKOA	5
4.1. ZER DA IRAKURTZEA?	5
4.3.2 Irakurketa- idazketaren metodo desberdinak	11
4.4. IRAKURKETA-IDAZKETA GARATZEKO TREBETASUNAK	15
4.4.1 Foniko- Analitikoa- Sistetikoa (FAS) metodoaren abantailak	15
4.4.2 Trebetasunak garatzea	16
4.5. DOMAN METODOA	17
5. METODOLOGIA	19
5.2 DOMAN METODOA	20
5.2.1 Planifikazioa	22
5.3 KLASEAN AURRERA ERAMATEKO JARDUERAK	22
5.3.1 Arbela magikoa	23
5.3.2 Fonologia ikasten	25
5.3.3 Nire koaderno	27
7. ONDORIOAK	29
8. HOBEKUNTZA PROPOSAMENA	32
9. BIBLIOGRAFIA	31
ERANSKINAK	32

1. SARRERA

Gradu-amaierako lan hau Lehen Hezkuntzako irakurketa-idazketarako bideratuta dago; Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleak ditu ardatz, lehen mailakoak, hain zuzen.

Idazketa eta irakurketa ikasteko tresnak dira ikaslearen garapen kognitibo eta heldutasunerako. Irakurketa-idazketa gure gizartearen oinarria da eta Ruiz Bikendi- k (2009, 237 orr.) aipatzen duen bezala:

“Hizkuntza idatziak eskolako zereginetan eta gure gizarte- bizitzan duen pisua hain da handia non oso garrantzitsua baita haurra ikasten hasten den une beretik modurik motibatzailean ziurtatzea haren erabilera, batez ere haurren eta hizkuntza idatziaren artean den harreman hori luzea eta emankorra gerta dadin nahi bada”

Bistan dago irakurtzea eta idaztea languntzen dutela ezagutzak garatzen eta horregatik eskolarentzat garrantzitsua da irakurtzen eta idazten irakastea modu arrakastatsu batean. Lehenik eta behin, garrantzitsua da idazketa- eta irakurketa kontzeptuak argitzea, bi kontzeptu desberdin izan arren estu lotuta baitaude. Bi kontzeptu horiek hausnartu ondoren, "irakurketa-idazketa" azaldu ondoren haratago doan kontzeptua azalduko da, idazketa eta irakurketa ikasteko prozesua biltzen duena. Lehen zati hau garrantzitsua eta beharrezkoa da; izan ere, ondoren, landu eta aurrera eramateko erabil daitezkeen metodoetan oinarrituko da gradu amaierako lan hau. Atal hau argitu ondoren, beharrezkoa da irakurketa-idazketa ikasteak dituen faseak ezagutzea, fase hauek ikasle edo haur batek izan ditzakeen arazoak edo gabeziak antzematen lagun dezaketelako.

Lan honen beste zati garrantzitsu bat gaur egun erabiltzen diren metodo motak definitzea da alderatu ahal izateko. Garrantzitsua da metodo bakoitza zertan datzan jakitea, metodo guztiek ez baitute helburu bera, eta, gainera, ikasleen ezagutzak kontuan hartu behar dira, metodorik egokiena zein den jakiteko. Gai honekin zerikusia du irakurketa-idazketa garatzeko trebetasunak, metodoa argi izan arren, gero aurrera eraman behar da, eta hori izan daiteke benetan zaila; horregatik, atal horretan Fonikoa- Analitikoa- Sintetikoa (FAS) metodoa eta erabil daitezkeen estrategiak aurkeztuko dira.

Amaitzeko, lanaren azken puntua irakurketa-idazketa metodo eraginkor baten proposamena euskaraz egitea izango da. Proposamen hori Doman metodotik sortu da, eta lau jarduera aurkeztuko dira. Lehenengo jarduera familientzat dago zuzenduta, etxean aurrera eramateko; bigarrena (Arbela magikoa), hirugarrena (Fonologia ikasten) eta laugarrena (Nire koaderno), klasean aurrera eramateko helburuarekin daude diseinatuta.

2. JUSTIFIKAZIOA

Beti gustatu zait hezkuntzaren esparrua, irakasleak etengabe trebatzen ari baitira, ikasleengandik ikasteaz gain. Badira urte batzuk argi izan dudala Lehen Hezkuntzako

gradua ikasi nahi nuela. Gradua hasi nuenean, ez nuen gaur egun eskolan ematen den hezkuntzarekiko inolako kritikarik. Baina graduko lehen kurtsoa eta lehenengo praktikak egin ondoren, konturatu nintzen gaur egun duela urte batzuk erabiltzen ziren metodo zaharrak erabiltzen jarraitzen dutela hainbat eskolatan.

Nire lehenengo praktikak Lehen Hezkuntzako lehen mailan egin nituen, eta praktikak egiteko aukera izan nuen ikasleak irakurtzen eta idazten ikasteko bidean zeuden unean, gaur egun gizartean hain nabarmena den eta barneratu behar den gaitasuna. Idazteko edo irakurtzeko ordua zenean, adin hori nuenean oroitzapen asko etortzen zitzaizkidan, eta irakurtzen eta idazten ere ikasten ari nintzenean. Denboraldi horretan, konturatu nintzen zein garrantzitsua den klaseak emateko eta gauzatzeko modua. Ikasle batzuek bazuten gaitasuna grafiak egiteko, baina beste askok ez. Irakasleak ezagutzen zituen desberdintasun horiek, baina ez zuen erantzun askorik ematen egoera horren aurrean. Kasu horretan, irakasleak metodologia analitiko bat erabiltzen zuen, non ikasle guztiak ikaskuntza-erritmo berera zihoazen. Baina ikasleek erritmo desberdinean ikasten dutenean iristen da arazoa. Orduan, une horretan konturatu nintzen eskola batzuek oraindik ez dietela eskaintzen ikasleei irakurketa-idazketa hastapen ona, eta praktikara eramandako metodologiek ez dizkietela emaitzak eskaintzen ikasleei. Ondorioz, ikasleak aspertu egiten dira eta motibazioa galtzen dute.

Hurrengo praktikan ikusi ahal izan dut ikasleak irakurtzean edo idaztean frustratuta sentitzen zirela. Askotan, irakasleak arbelean idazten dituen hitzak kopiatzea besterik ez dute egiten ikasleek, eta beste askotan, irakurketan, irakasleak esaten dituen hitzak ozenki errepikatzen dituzte ikasleek.

Egia da orain arte ez nekiela zein zen irakurketa-idazketa irakasteko modurik onena, eta, beraz, ez nekien irakaskuntza-modu hori zuzena zen ala ez. Horregatik, "idazteko eta irakurtzeko metodologiak" gaia aukeratu nuen nire GRALa egiteko eta, hartara, irakurketa-idazketa irakasteko moduei eta gai horrek biltzen duen informazio guztiari buruz ikertzeko. Gai hori lantzea oso eroso izango zela pentsatu nuen, nire interesekoa baita, eta horrelako lan batek interesa izan behar du egiten duenarentzat.

Hortaz, gai hau aukeratzeko arrazoiak asko izan dira. Horietako bat goian aipatutakoa da (praktikan izan dudana esperientzia), beste arrazoi bat izan da graduan "Hizkuntza eta literaturaren didaktika" ikasgaia egin dudala eta idazketa eta irakurketari buruz ikasi dudala (zer da irakurtzea, zer da idaztea, hizkuntza idatziaren psikogenesia, irakurketa-idazketaren didaktika...).

Amaitzeko, lan honetatik kontzeptuak argitzea eta irakasle eta familientzako laguntza izatea espero dut, biek erantzukizuna baitute esparru honetan. Gainera, lan hau burutu ondoren, biharko egunean, irakaslea izatean, uste dut oinarri sendoago bat izango dudala eta ikasleei jarduera eta metodologia berriak eskainiko dizkiedala.

3. HELBURUAK

LHko klaseetan idazketa eta irakurketa prozesua oso garrantzitsua denez, horixe jorratu nahi da GRAL honetan LHn oso premiazkoa delako biak ondo ikastea. Horretarako hiru helburu hauetan oinarrituko da lana aurrera eraman ahal izateko.

- Irakurketa metodologia eraginkorrei buruz ikertzea, hau da, irakurketa barneratzeko hainbat metodologia aurkeztuko dira eta metodologia bakoitza aztertuko da metodologia eraginkorrena zein den ondorioztatzeko.
- Proposatutako jardueren bidez, haur bakoitzaren potentziala nola atera aztertzea, beraiek beraien kabuz lan eginez eta autonomoak izanez. Izan ere, Heziberri curriculumean oso argi azaltzen da autonomia garatu behar dela, horregatik irakurketa eta idazketa lantzea garrantzitsua da etapa honetan.
- Bestelako bideak bilatzea irakurketa eta idazketa modu arrakastatsuan lantzeko. Eta, modu horretan eguneroko esperientziak izatea ikasleentzat, eta biharko egunean jarduera horiek erabilgarriak izatea gizartearekin komunikatzeko eta harremanetan egoteko.

4. MARKO TEORIKOA

4.1. ZER DA IRAKURTZEA?

"Irakurri" terminoa ulertzeko modu asko daude. DRAEren (2021) arabera irakurtzea hau da: "Pasar la vista por lo escrito o impreso comprendiendo la significación de los caracteres empleados". Irakurtzea idatzizko mezuak interpretatzea eta ulertzea da. Beraz, Silvak (2019) aipatzen duen bezala, irakurtzeak esan nahi du zenbait zeinu grafikotan jartzen duena deskodifikatzea.

Definizio hori osatuz, irakurtzea prozesu intelektual bat da, non kode bat irudi mentaletan deskodetzen den ahozko kode batean adierazi ahal izateko, beti ere ulermena badago. Gaur egun, irakurtzeak ulertzea esan nahi duela bistan egon arren, ez da beti horrela izan, baina oraindik jende asko alfabetatuta, irakurmena eta deskodetzeko gaitasuna elkarrekin lotzen dituen, ulertzeko gaitasunarekin baino gehiago (Fons, 2004). Hori dela eta, oraindik ere ikasgelan egiten diren jarduerak deskodetzeari lotutako irakurketa-kontzeptu bati erantzuten diote. Garrantzitsua da "ulertzea" eta "testu idatzi bat nola ulertzen den" bereiztea. Horretarako kontzeptua argitzeko Isabel Soleren hitzak kontuan hartuko dira. Testu idatziaren ulermen gisa irakurtzeak ondorio hauek ditu (Solé, 1987 in Fons, 2004):

- Irakurtzea prozesu aktiboa da, irakurtzen dugunean testuaren esanahia eraiki behar baitugu harekin elkarreraginean. Horrek esan nahi du idazkiaren esanahia aldatu egiten dela pertsonaren arabera, beraz, baliteke autorearen esanahi desberdina ematea. Esanahi horren barruan sartzen dira irakurlearen ezagutzak eta aurrean dituen helburuak.
- Testualizazioa eraikuntzari dagokio. Testuingurua kokatzen dugunean, gure jakintzak aktibatzen ditugu, hala nola hitzak osatzea, faktore lexiko eta sintaktikoak, testu-kohesioa...
- Berrikuspena prozesu garrantzitsua da, idatzizko produkzioari dagokioke. Adibidez, idazten denean, ez dago hitz egiten denean bezain presiorik; izan ere, idaztean, denbora dago idatziko den testuan pentsatzeko. Idatzizko adierazpenean nahi diren aldaketak egin daitezke.

Silvarekin jarraituz (2019) eta irakurketaren ikaskuntzan arreta jarritz, honek bi fase aipatzen ditu. Lehena letren eta soinuen arteko korrespondentzia umeez ikasten dutenean da, eta horrek silabak eta hitzak deskodetzen hasteko aukera ematen du. Etapa horri etapa alfabetiko deritzo, eta bertan irakurketa fonologikoa egiten da. Beraz, fase honetan kode alfabetikoa eskuratuko da.

Bigarren etapan automatizazioa eta irakurketa-arintasuna gauzatzen dira. Silvak (2019) dioenez, batzuetan, pertsonak pentsatzen dute badakitela irakurtzen, baina bigarren etapa hau geratzen da, non, kodea ikasi ondoren, abiadura eta zehaztasuna irabazten hasten den. Etapa honetan azkarrago irakurtzen da, behar bezala eta akatsik egin gabe.

Informazio hori guztia kontuan hartuta, ikaskuntza prozesu honetan, zenbait alderdi hartzen dira kontuan, hala nola artikulazioa, entzumen-diskriminazioa eta orientazio espaziala. Alderdi horiek lantzeko, normalean, puzzleak, kartelak, alfabetoak, bingoak, diktatuak... erabiltzen dira (Silva, 2019). Material horiek haur txikiei irakurtzen irakastea errazten dute. Material horiek balio badute ere, batzuetan irakasleak ez dira konturatzen horretarako metodo egokia erabiltzen ari diren. Edo irakasten den adinerako zuzena bada. Ikasleentzat hoberen izango den metodoa bilatu behar da, bizitzan zehar onura gehien aterako diena.

"Irakurketa" kontzeptua argitzen amaitzeko, Ruiz Bikandik (2009) bi estrategia azaltzen ditu kontzeptua azaltzeko. Alde batetik, *behetik gorako estrategiak*, bat datoz irakurketaren ikuspegi tradizionalarekin. Ikuspegi horren arabera, irakurketan letrak identifikatzen dira lehenik; letren bidez, hitzak; pixkanaka, esaldiak osatu eta esaldien esanahiak elkarrekin lotzen dira, harik eta testuaren ideia globala osatzen den arte. Eredu horretan, faktore nagusia "testuak dioena" da, eta irakurketa esanahia "ateratzeko" modutzat hartzen da. Bestetik, *goitik beherako estrategiak*, irakurtzea ulertzea da eta horren arabera, irakurleak badituen kontzeptuak, hots, alde zuzenetik dakiena da gida testua ulertzean: dakiena

eskema gisa erabiltzen du irakurtzen duena interpretatzeko; inferentziak eta hipotesiak egiteko, hurrengo esanahiei aurrera hartzeko eta interpretazio- eskema bat eraikitze bidea ematen dio dakienak, gero, eskema horretan oinarrituta, hitz eta esaldi idatziei balioa emateko.

Orokorrean, autore guztiak ados daude irakurtzea ulermen-, eraikitze-, inferentzia- eta hipotesiak eratzean eta probatzean datzan prozesua dela.

4.2. ZER DA IDAZTEA?

Idaztea, DRAEk (2021) dioenez, "Representar las palabras o las ideas con letras u otros signos trazados en papel u otra superficie" da. Idazki bat egiteko edo sortzeko prozesuaz hitz egitean, besteak beste hartzaileaz, mezuaz eta idazleak adierazi nahi duen moduz ari gara. Idaztea prozesu garrantzitsua da Ruiz Bikandik (2009) aipatzen duen bezala, idatzizko hizkuntza menderatzea da neska- mutikoen eskolaratzearen helburu nagusienetako bat. Lehenik, idazketa tresna nagusia delako eskola- umeen ezagutza- gaitasunak garatzeko eta ikasgelan jorratzen diren jakintzak bideratzeko. Eta, bigarrenik, trebetasunak eskatzen dira testuinguru askotarikoetan irakurtzeko eta idazteko gaitasunak ezinbestekoak direlako hiritar aske izan daitezen. Fons-ek (2004) azaltzen duen bezala, askotan pentsatzen da idaztea paper zuri baten gainean letrak eta zeinuak jartzeaz harago doan prozesua dela, baina ez da beti horrela izan. Adibidez, ikasgelan kaligrafiaren eta grafo fonikoaren arteko erlazioaren bidez idazten ikasten da, eta gehienetan ez da egiten lehen aipatu den testua sortzeko prozesu osoa.

Eraikuntza-prozesu horretan gaitasun kognitiboek parte hartzen dute, hala nola plangintzak, testugintzak eta berrikuspenak.

Alde batetik, plangintzan, autoreak hainbat erabaki hartu behar ditu testua egiten duen bitartean. Prozesuaren fase honetan, autoreak ideiak sortu, ideia horiek antolatu eta helburu batzuk proposatu behar ditu.

Bestetik, testugintzan, fase honetan, testu-bilbea eraikitzen da. Prozesu horretan, ezagutza asko aktibatzen dira; esaterako, hitzak, faktore lexiko eta sintaktikoak edo testu-kohesioa. Idazleak kontuan hartu beharko ditu ezagutza horiek eta kontuan hartu planifikazioan planifikatutako asmo eta plan globalak.


Eta azkenik, berrikuspena. Testuaren osaketaren prozesu garrantzitsuena da. Prozesu horrek bereizten ditu idatzizko ekoizpena eta ahozko ekoizpena. Idazten denean, ez da hitz egiten den bezain presio handia; izan ere, berrikuspenari esker, aldaketak egin eta testua doitu daiteke.

Idazketa kontzeptuarekin amaitzeko, lau eta zazpi urte bitarteko haur gehienek idatzizko lanak deskribatzeko balio dezaketen bost idazketa-mailak aurkeztuko dira (Teberosky, 1996 in Fons, 2004):

- ❖ *Lehen fasea: helduaren idazkeraren ezaugarrien erreprodukzio gisa idaztea.*

Maila honetako grafikoak zirkulu txikiak, makilatxoak eta beste forma ez-ikoniko batzuk dira. Haurrak marrazkiaren idazketa eta aurkaritza bereizten ditu: idatzia marrazkia ez den guztia da, baina lortzen dituen ekoizpenen emaitzan ez da bereizten marrazkia eta idazketa.

Maila honetako eskriturak alderdi formalen eta idazlanaren imitazio bat dira.




1. Irudia: lehen faseko idazketaren adibidea

- ❖ *Bigarren fasea: formalki erregulatutako produkzio gisa idaztea, eskritura bereiziaz sortzeko.*

Fase honetako ekoizpenek forma grafiko desberdinak dituzte, hitz desberdin bat idazteko proposamen bakoitzerako. Haurrak hipotesi hauek egiten ditu:

- Kantitate-hipotesia: zerbait esateko karaktere-kopuru minimoa egon behar duela uste du.
- Barne-aniztasunari buruzko hipotesia: karaktereen errepertorioan aldaketak egon behar du, letra berdina askok ez baitute ezer esaten.
- Kanpoko aniztasunari buruzko hipotesia: idazketen artean desberdintasun objektiboak egon behar dira gauza desberdinak esan ditzaten.




2. Irudia: bigarren faseko idazketaren adibidea

- ❖ *Hirugarren fasea: hitzaren silaba-segmentazioak kontrolatutako produkzio gisa idaztea.*

Fase hori haurrek idazkeraren eta soinu-hitzaren arteko harremanaren bat aurkitzen dutenean hasten da. Hipotesi hauen bidez garatzen da:


- Silabika kuantitatiboa: ahoz ezagutzen duten alderdi bakoitzari irudikapen grafiko bat dagokio.
- Silaba kualitatiboa: aurreko hipotesiari grafien balio konbentzionala gehitzen diote. Silaba bakoitzari grafia bat dagokio.



3. Irudia: hirugarren faseko idazketaren adibidea

- ❖ *Laugarren fasea: Hitzaren segmentazio silabiko-alfabetikoaren bidez kontrolatutako produkzio gisa idaztea.*


Fase honetan soinuak eta grafiak egokitzeke bi modu erabiltzen dira: silabikoa eta alfabetikoa. Silaba bakoitzerako grafia bat baino gehiago idazten hasten dira.



4. Irudia: laugarren faseko idazketaren adibidea.

- ❖ *Bosgarren fasea: hitzaren segmentazio alfabetiko-sakonaren bidez kontrolatutako produkzio gisa idaztea.*

Fase honetan, analisi alfabetiko zorrotza egiten du haurrak. Soinuen eta grafien arteko korrespondentzia ezarri eta orokortzen du. Maila honen lehen unean, alderantzizko silabak, trabatuak eta konplexuak idazteko arazoak daude oraindik. Idazkera alfabetikoaren bidez, haurrak kodea ondo menderatzen du, nahiz eta ortografiaren zati handi bat ikastea falta zaion.



5. Irudia: bogarren faseko idazketaren adibidea

4.3. IRAKURKETA- IDAZKETA

Irakurketa-idazketa, 4-7 urte bitarteko haur txikiak irakurtzen eta idazten hasten diren aldiari dagokio. Urte askoan, eskola-aldian, irakurketa-jarduerak eta idazketa-jarduerak bereizi dira (Fons, 2004). Haurrek irakurtzen eta gero idazten ikasten zutela pentsatzen zen. Baina denborarekin, egin diren azterketen emaitzekin, hain zuzen, ulertu da irakurtzea eta idaztea elkarrekin irakatsi eta ikasi beharreko bi jarduera direla. Hau da, bi fase dituen jarduera bakarra da, irakurketa-idazketa (lektoeskritura) izenekoa. Beti pentsatu izan da idaztea zela

irakurtzeko alderantzizko jarduera; irakurtzea, ostera, jasotzea eta idaztea produzitzea zen. Baina Fons-ek (2004) dioenez, irakurketa beti zegoen idazlanaren aurrean. Lehenik, testu bat edo hitz bat zer esaten zuen irakasten zen, eta gero idazten zen.

Teberosky-ren arabera (1996), irakurtzearen eta idaztearen arteko simetria horrek beste ideia baten eragina du: irakurketa eta idazketa prozesu kognitibo periferikoak soilik eskatzen dituzten trebetasunak direla ulertzea, batez ere ikusmen-, mugimendu- eta entzumen-prozesuak.

Irakurtzen edo idazten denean, ez dira ezagutza berak erabiltzen, eta, gainera, prozesu desberdinak erabiltzen dira. Halaber, irakurketa ez dela idazketaren aurretik gertatzen; gaur egun, haur askok dakite hitz bat edo gehiago idazten, aurretik ezer irakurri gabe. Alabaina, Fons-ek (2004) aipatzen duen bezala, prozesu desberdinak diren arren, bata bestearekin zerikusia duten ikasketak dira, horregatik ikasten dira elkarrekin eskolan, bi prozesu horiek objektu berari egiten diote erreferentzia: testu idatziei (Fons, 2004).

4.3.1 Irakurketa-idazten ikaskuntzako etapak

López eta Dionisiok (2016) diote irakurketa-idazketa ikasteko prozesuan hiru etapa daudela: azaleratzen ari dena, hasierakoa eta garatzekoa.

Lehenik eta behin, soinuen, letren eta hiztegiaren bidezko irakurketarekin hasten da Ondoren, irakurketa isilaren bidean aurrera egiten da eta hiztegia handitzen da. Eta, azkenik, irakurtzen dena edo entzuten dutena ulertu, gogoratu eta komunikatzeko estrategiak erabiltzea, eta irakurketa-idazketarako beharrezkoak diren ikusmen-, entzumen- eta mugimendu-trebetasunak garatzea. Hiru etapa horiek jarraian azalduko dira, López eta Dionisioren arabera (2016):

1. *Irakurketa-idazketa azaleratua*: irakurketa-idazketa lortzeko hasierako edo prestakuntzako prozesuari dagokio. Etapa honen helburua ikasleek beren ahozko hizkuntza garatu eta hiztegia zabaltzea da. Gainera, ulertzen dute hitzek objektuak izendatzeko balio dutela eta soinuak letra inprimatuekin erlazionatzen direla. Faserik garrantzitsuenetako bat da, etorkizunerako ikaskuntzaren oinarria baita, hau da, beharrezkoa da ikaskuntzan aurrera egin ahal izateko.
2. *Hasierako irakurketa- idazketa ikaskuntza*: Irakurketa- idazketa irakasteko eta ikasteko prozesuari dagokio. Irakurtzen ikasteko, beharrezkoa da irakasleak zuzenean irakastea eta ikasleei egunero irakurtzeko aukera ematea. Etapa horren barruan, garapen desberdinak irakasten dira. Garapen hauek hirugarren etapan kokatzen dira, irakurketa-idazketa ikaskuntzan:
 - ❖ Ahozko hizkuntzaren garapena
 - ❖ Ahozko ulermenaren garapena

- ❖ Irakurketa-idazketa sustapena
- ❖ Kontzientzia fonologikoa
- ❖ Idatzizko hizkuntzaren kontzientzia garatzea
- ❖ Hiztegiaren garapena
- ❖ Grafomotrizitatearen garapena.

Ondoren, irakurketa-idazketa gaiarekin jarraituz, irakurketa-idazketa prozesuan dauden metodoak aurkeztuko dira.

4.3.2 Irakurketa- idazketaren metodo desberdinak

Gaur egun, irakurketa-idazketaren inguruan hainbat metodo eta teoria daude irakurketaren eta idazketaren praktikaren eta azterketaren oinarri (Acrbio, 2017). Metodo batzuek ikaskuntzaren alderdietan jartzen dute arreta; lehenik, letretan, gero silabetan eta hitzetan azkenik, esaldietan. Oso metodo arrunta da, ia jende guztiak ikasi du irakurtzen eta idazten metodo mailakatu honekin. Gero, badira beste metodo konstruktibista batzuk; metodo horiek haurraren pertzepzioan zentratzen dira, zeina sinkronizatzen hasten baita, osotasuna hartuz. Hau da, ikasleari hasieratik hitz osoak aurkezten zaizkio bere esanahiarekin (Acrbio, 2017).

Bi metodo horiek kontuan hartuta, garrantzitsua da irakurketa-idazketa ikasteko erabil daitezkeen estrategiak aurkeztea. Hartara, ikasleak ezagutzeko eta baten bat erabili behar izanez gero, zein den egokiena jakitea, ikaslearen gaitasunak eta lortu nahi diren helburuak kontuan hartuta.

Acrbio-ren arabera (2017), hiru metodo mota daude: batetik, metodo silabikoa, beste metodo alfabetiko bat eta, azkenik, metodo fonetikoa. Hurrengo orrialdetan hiru metodoak azalduko dira:

❖ Metodo silabikoa

Metodo horren autore nagusiak Federico Gednike eta Samiel Heinicke (in Acrbio , 2017) dira. Bokalen irakaskuntzan datza. Ruiz Bikandi- k (2009) *metodologia sintetikoa* deitzen dio “pedagogia tradizionalan arau bokalak irakatsiz hastea izan da, eta ondoren kontsonanteak; ondoren, batzuk eta besteak konbinatu eta silaba zuzenak (kontsonantea + bokala) osatzea lehenik, eta ondoren zeharkakoak (bokala + kontsonantea) eta trabatuak (kontsonantea + kontsonantea + bokala), eta halaxe esaldiak osatu arte.” (Ruiz Bikandi, 2009, 239. orr.) Metodoaren prozesua hauxe da:

1. Bokalak irakasten dira, idazketa eta irakurketa nabarmenduz.
2. Kontsonanteak beren ahoskera erraza errespetatuz irakasten dira, gero hitzen formulaziora pasatzen dira, ikaskuntza bultza dezaten.

3. Kontsonante bakoitza silaba zuzenetan konbinatzen da bost bokalekin: la, le, li, lo eta lu.
4. Silaba bat baino gehiago daudenean hitzak sortzen dira eta gero perpausak eraikitzen dira.
5. Ondoren, kontsonanteak eta bokalak alderantzizko silabetan konbinatzen dira: al, el, il, ol eta ul. Horiekin hitz eta esaldi berriak sortzen dira.
6. Ondoren, silaba mistoetara, diptongoetara, triptongoetara eta, azkenik, lau letretara pasatzen da, konplexuenak. Silabeoarekin erraz pasatzen da irakurketa mekanikora, adierazkorra eta ulerkorra.

Gehien erabiltzen den metodoetako bat den arren, ez da irakasle askoren gustukoena, silabatik abiatuta ere ikaskuntza oso motela baita. Gainera, ez du irakurketa-abiadura bultzatzen eta silabeoarekin arazoak sortu ahal dira, silabak bereiziz irakurtzen dutelako, ez hitzak. Metodo tradizional samarra da, eta aspergarria ere izan daiteke. Ruiz Bikandik (2009) dioenez, ez du kontuan hartzen hizkuntzaren erabileraren oinarrizko funtzioa: komunikazioa. Irakurtzen eta idazten ikastea testuinguruz kanpo gertatzen da hala, zentzurik gabea: idatzitako esaldiek ez dute zentzurik. Hala ere, metodo guztiek bezala, baditu abantailak, besteak beste:

- Alde batera uzten ditu metodo alfabetikoaren deletrea eta hitzen letrak banan banan ahoskeratzea.
- Ordena logiko bat jarraitzen du irakaskuntzan eta ariketen antolamenduan.
- Silabak hots-elkarketak dira, eta zentzumenez erraz hartzen dituzte, haurraren hitzen bereizketa silabikoa indartuz (silaba-metodoa).

❖ Metodo alfabetikoa

Metodo zaharrenetako bat da, Erdi Aroan eta Aro Modernoan erabili baitzen. Alfabetoaren ordenari jarraitzen diolako du izen horrek. Lehen aipatu den bezala, alfabeto-ordenari jarraitzen zaio, ikasteko. Alfabetoko letra bakoitza aztertzen da. Bere izena esanda. Letrak batera idazten eta irakurtzen dira. Kontsonanteak bokalekin ere konbinatzen dira, eta konbinazioetatik hitzak sortzen dira. Metodoaren prozesua hauxe da:

1. Ordena alfabetikoari jarraitzen dio ikaskuntzarako.
2. Alfabetoko letra bakoitza bere izena esanez aztertzen da: a; be, ce; de; e; efe; etab.
3. Letrak batera idazten eta irakurtzen dira.
4. Alfabetoa ikasiz, kontsonanteen eta bokalen konbinazioa hasten da, eta horrek silabak egiteko aukera ematen du. Lehenengo silaba zuzenekin egiten

da, adibidez: ba, a: ba; be, e: be, etab. Ondoren, alderantzizko silabekin, adibidez: a, be: ab; e, be: eb; i, be: ib; o, be: ob; u, be: ub eta, azkenik, silaba mistoekin, adibidez: be, a, ele, de, e: de, e.

5. Konbinazioek hitzak sortzeko aukera ematen dute, eta ondoren perpausak.
6. Ondoren, diptongoak eta triptongoak aztertuko dira; letra larriak, azentua eta puntuazioa.
7. Metodo horrek irakurketa mekanikoa azpimarratzen du; ondoren, adierazkortasuna (azentuazio, eten eta intonazio zeinuak kontuan hartzen dituen), eta, azkenik, ulermena.

Metodo horretatik abantaila batzuk atera ahal dira; besteak beste, alfabetoaren araberako ordenazioa ahalbidetzen du, hitzen ezaugarri ortografikoak antolatzen laguntzen du eta hitzak sinpletik konplexuenera antola daitezke. Baina desabantailak ere baditu:

- Haurren pentsamoldearen ikaskuntza prozesua hausten du.
- Lehenik letrak memorizatzen ditu eta gero konbinazioak.
- Letren ezaugarriei arreta jartzeagatik, hitzen esanahia ulertzea ez da kontuan hartzen.
- Letreiatzera ohitzen dira.
- Letren soinua irreal da, silaba solteak ez dira irakurtzen edo ahoskatzen hitz baten barruan daudenean bezala.

❖ Metodo fonetiko- foniko

Metodo hau fonemen bidezko irakurketan eta idazketan oinarritzen da. Hona hemen jarraitu beharreko prozesua (Acrbio, 2017):

1. Ahots letrak beren soinuen bidez irakasten dira, ikertutako letrekin hasten diren irudidun txartelak erabiliz.
2. Irakurketa idazketarekin batera egiten da.
3. Kontsonante bakoitza bere soinuen bidez irakasten da, animalia, objektu, fruta eta abarren irudia erabiliz. Haren izena letrarekin hasten da, adibidez: m irakasteko, mahai bat duen kartulina zati bat; edo m-ren soinua onomatopeikoa sortzen duen zerbait, mm...mm behi baten soinua.
4. Kontsonanteak ezin direnean bakarrik ahoskatu: tz, tx, j, k, ñ, p, w, x, eta abar, silabetan irakasten dira, bokal batekin konbinatuta, adibidez: txinera, txinatar baten irudiarekin.
5. Ikasitako kontsonante bakoitza bost bokalekin konbinatuz doa, zuzeneko silabak eratuz: ma, me, mi, mo, mu, etab.

6. Gero silaba ezagunak konbinatzen dira hitzak eraikitzeko: ama, ama memo, etab.
7. Zenbait hitz ditugunean, esaldiak eratuko dira, adibidez, "Nire amak maite nau".
8. Silaba zuzenen ondoren alderantzizkoak, mistoak, konplexuak, diptongoak eta triptongoak irakatsiko dira.

Metodo hori logikoagoa, sinpleagoa eta arrazionalagoa da. Ikasleak errazago irakurtzen du, eta denbora gehiago behar du irakurritakoa ulertzeko. Baina desabantaila handiak ere baditu:

- Ez du interesik ikaslearentzat.
- Ulermena alde batera uzten da.
- Irakasleak metodoa menderatzea eskatzen du.
- Mekaniko bihurtzen da.

Horretaz gain, badira beste autore batzuk hiru metodo desberdintzen dituztenak, esaterako, Ruiz Bikandi bat dator Acrbiorekin lehen metodoarekin, baina beste bi metodo desberdin proposatzen ditu (Ruiz Bikandi, 2009):

❖ Metodologia analitikoa (bide deduktiboa)

Metodo honetan, metodo sintetikoan ez bezala, analizatzen diren esaldiak eta hitzak esanahidunak dira eta zentzua dute ikasleentzat. Metodo honetan testu osoak dira abiapuntu, esaldiak edo, bestela, ikasleek ezagunak dituzten hitzak. Espero da analizatze- prozesuan ikasleek inferitu, deduzituko dutela hotsen korrespondentzia identifikazio grafikotik.

❖ Metodologia bitarikoa

Irakurtzen eta idazten ikasteko bi bide konbinatu horiek (metodo sintetikoa eta metodo analitikoa) elkartu nahi izan dituzte planteamendu eklektikoak zituzten zenbait joera pedagogikoak, unean unekoa erabiliz, eta, hartara, ikuspegi sintetikoarekin bat zetozen hitz- osaketarako prozesuak erabili dituzte batzuetan, eta metodologia global- analitikoarekin bat zetozen deskonposatzeko prozesuak.

Azken finean, metodo bakoitza eraginkorra izango da irakaslearen helburuaren eta ikasleen ezaugarrien arabera. Horregatik, ondo jakin behar da zer metodo dauden, bakoitzak zer ekarpen duen eta bakoitzak zer alde onak izan ditzakeen. Hau da, metodo konstruktibista bat erabili, ikasleari ezagutza eraikitzen laguntzeko, eta bideratzeko prozesu bat sortzea; sinpletik (intuiziozko ezagutza) konplexura (ezagutza formala, zientifikoa) joatea baita.

4.4. IRAKURKETA-IDAZKETA GARATZEKO TREBETASUNAK

Gaur egun irakurketak eta idazketak, baita irakurketaren eta idazketaren irakaskuntzak landu beharreko trebetasunak duten garrantzia aztertu behar da. Hain zuzen, idazten eta irakurtzen irakasteko trebetasunik eza da gure gizartearen arazoetako bat. Horretarako, FAS metodoa aztertuko da, eta haren abantailak azalduko dira (González López, 2018).

Irakurketa-idazketa prozesu linguistiko bat da, eta ikasleak eskuak eta orofazialak erabiltzen ditu; izan ere, konplexua da, eta trebetasun desberdinak jorratzen ditu gizabanakoarengan arrakastaz eramateko.

Irakurketa-idazketa gero eta garrantzitsuagoa da irakasleentzat. Garrantzitsua izan arren, haur baten garapenean lehenago eta geroago eragiten baitu, aldaketa eta trebetasun asko behar dituen eremua da. Gazteek ez dute irakurtzeko gaitasunik, eta hori ageri da PISA 2015en emaitzetan (OCDE, 2017).

Irakurketa-idazketaren irakaskuntzan material didaktikoak eta sormena estrategietan erabiltzen ditugunean, gaitasunez ari gara. Gaitasun horiek prozesu pedagogiko arrakastatsuak dira, ikasleak erronka kognitiboak, jakintzen mugikortasuna, ikaskuntza esanguratsua eta arrazoitzea eskatzen baititu ikaskuntzan zehar. González López, Machin Mastromatteo eta Tarangoren arabera (2019), irakasleek ikasgelan irakasteko eta ikasteko erabili behar duten tresnetako bat pentsamendu-, hizkuntza- eta mugimen-gaitasunen diagnostikoa da. Diagnostiko horren bidez, ikasleak dakiena jakin daiteke, ikaskuntzan aurrera egiteko prestatuta dagoen edo irakurketa-idazketan enfasia jarri behar den; diagnostiko hori González Lópezek (2018) asmatutako FAS (Fonikoa-Analitikoa-Sintetikoa) metodoaren bidez egiten da; metodo horretan, letren, izenaren eta silaben soinua ikasten da, hitzak, perpausak eta testua osatu arte. Honek hiru osagai ditu: fonikoa, bere oinarria soinuaren, hizketa biziaren azterketan dagoelako; analitikoa, ikaskuntzan hurrek perpausak hitzetan zatitu behar dituztelako, hitzak silabetan eta silabak soinuean; eta sintetikoa, beren garapenean hurrek berriz ikasten dutelako zatiak integratzen, osotasuna berrosatzera iritsi arte.

4.4.1 Fonetikoa- Analitikoa- Sintetikoa (FAS) metodoaren abantailak

Lópezek eta Dionisiok diotenez (2016), FAS metodoa herrialde askotan erabiltzen da. Irakurketa-idazketa ikasteko prozesuan dituen abantaila nagusiak zehazten dira jarraian:

1. Metodo alfabetikoa baino errazagoa eta arrazionalagoa da. Saihestu deletreoa. Kasu askotan, ikasleak nekatu egiten dira, motibaziorik gabe. Gainera, ikaslea zapuztu egiten dute, eta gero asko kostatzen zaie irakurketara iristea.
2. Soinuen lotura errazagoa eta azkarragoa denez, ikasleak errazago eta denbora gutxiagoan irakurtzen ditu beste metodo batzuk baino.

3. Ikaslearen parte-hartze aktiboa bultzatzen du, bai silabak, hitzak eta esaldiak osatzean, bai osagaien erabileraren bidez.
4. Erabiltzen diren letrak zuzenean behatzean ikusizko pertzepzioa bezalako trebetasunen garapena nabarmentzen du; entzumena, soinuak entzuten dituenen, eta silabak eta hitzak osatzen laguntzen ditu.
5. Ikaslearengan fonema-entzumena garatzen du, letren eta talde fonematikoen soinu-erreproduktzioaren bidez.
6. Buruko analisi- eta sintesi-prozesuak garatzen laguntzen du, silabak, hitzak eta esaldiak eratuz.
7. Ulermenezko irakurketan sakontzen du, aurrera egin ahala irakurmenean enfasia egiten du eta, gainera, denbora hobeto aprobetxatzen delako.

4.4.2 Trebetasunak garatzea

Gaitasunak garatzeko, estrategia desberdinak daude ikus-entzunezko jarduerekin (bideoak edo filmak). Irakurketa esanguratsua egiteko, digitalizazioa (pantaila digitalen bidez irakurketa jarduerak aurrera eramatea, ikasle guztiekin testuak partekatzea denok irakurtzeko, ikasleen ordenagailuekin irakurketarekin eta idazketarekin zer ikusia duten jarduerak proposatzea..) ideia ona da eduki-aukera gehiago lortzeko, eta horrek alfabetatzeari laguntzen dio (García Rodríguez eta Gómez Díaz, 2016).

Pentsamendu-, informazio-, emozio-, fisika-, hizkuntza- eta mugimen-trebetasunak garatzeko, jokoarekin lotutako teknikak erabil daitezke errutinatik ateratzeko eta eta ikasleei aukera berriak erakusteko. Ondoren, taula bat aurkeztuko da, irakurtzeko eta idazteko trebetasunak garatzeko bost strategiaren plangintza jasotzen duena. Taula hau Gonzálezek berak egina da (2020).

1. Taula. Estrategien izena eta helburua Gonzalezen arabera.

ESTRATEGIEN IZENA	HELBURUA
1. Kolibriaren irakurketa.	Ikasleak pentsamendu-trebetasunak garatzea, entzutea, kontzentratzea, behatzea, konparatzea, pentsatzea, informazioa eztabaidetan oinarrituta bilatzen ikastea, irakasleak irakurritako irakurketaren aurretik, bitartean eta ondoren.
2. Letren gaikako memoramaren jokoa: a, e, i, o, u, m, p, l, t, s	Ikasleak letra eta hitzen soinu-balioa behatzea, identifikatzea, irudikatzea, idaztea, irakurtzea, elkarrekin bizitzea, buruz ikastea, sortzeko gaitasuna garatzea.
3. Kideen deskribapena, argazkia eta animalia bat	Ikasleak pertsonak honela deskribatzen ikastea: altua, baxua, kolorea, kopurua, generoa, gorpuzkera, ahots eta zenbakia. Hau da, bere hiztegia handitzea.
4. Hitzen gaikako gurutzegramak	Ikasleek hitz berriak idazten eta irakurtzen ikastea ikaskideen eta irakasleen sinergiarekin.
5. Hitz-kaligrama irakurketa-idazketarako	Ikasleak motrizitatea garatzea, idaztea, deskubritzea eta ikastea.

Jarduera bakoitza trebetasun baterako da. Jarduera horiek egokiak dira trebetasunak garatzeko, eta honetaz aparte, sortzaileak eta berritzaileak dira. Jarduera horien azalpena eta nola egin, beharrezko materialaz gain, Gonzálezen lanean (2020) aurki daitezke (<http://ojs.umc.cl/index.php/estudioseneducacion/article/view/83/63>) .

Irakurketa-idazketa gaiarekin jarraituz, irakurketa eta idazketa biltzen dituen metodo bat aurkeztuko da. Metodo hori (Doman Metodoa) azpimarratu beharra dago, gradu-amaierako lan honen zati handi bat metodologia horretan oinarritzen baita.

4.5. DOMAN METODOA

Glenn Doman doktoreak diseinatu du metodo hau. 1955ean, (in Ángeles Veladez, Gómez Zermeño eta García Mejía, 2013) Giza Potentziala Lortzeko Institutua sortu zuen, (The Institutes for the Achievement of Human Potential, IAHP), Filadelfian, Pensilvania Estatu Batuetan, garuneko lesioa zuten haurrak hartzen zituen. Han hainbat ikerketa egin zituen garunaren funtzionamendua eta garapena ulertzeko.

Domanek (Ángeles Veladez, Gómez Zermeño eta García Mejía, 2013) aipatzen duten bezala, espezialistekin (hala nola pediatrak, medikuak, pedagogok, psikologoak eta

neurozirujauak) hainbat urteak eman ondoren, haurrei irakurtzen irakasten hasi zen. Hortik aurrera, 1964an, Domanek *Nola irakatsi haurrei irakurtzen* liburua argitaratu zuen. Liburu honetan, irakurketa ikasteko prozesuari ekiteko metodologia bat aurkezten du.

Metodo honen bidez, irakasleak ahalik eta gehien aprobetxatzen ditu haurraren ezagutzak eta aukerak, arreta goiztiarra funtsezkoa izanez. Metodologia horri aurre egiteko, errutina zorrotz eta errepikakor bati jarraitu behar zaio, garuna estimulatzeko eta neurona-loturak sortzen laguntzeko. Metodo hori honela banatzen da (Negrete, 2015):

- ★ Irakurketa Programa.
- ★ Adimen programa.
- ★ Musika programa.
- ★ Matematikako programa.
- ★ Idazketa programa.
- ★ Bikaintasun Fisikoko Programa.
- ★ Atzerriko Hizkuntza Programa bigarren hizkuntza bezala.

Ikaslea zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta errazagoa da irakurketa eta idazketa barneratzea, batez ere lehen sei urteetan. Metodo horretatik atera ditzakegun abantailak irakurzaletasuna sustatzea eta haurraren adimena garatzen laguntzea izan daitezke.

Doman metodoa diseinatuta dago aitak edo amak haurrarekin egin dezan, haurraren ezaugarri eta beharretara egokituz, erraz eta, batez ere, dibertigarri izan dadin. Ez da zerbait zurruna, malgua baizik, aldaketak onartzen dituena (Orientacionandujar, 2017). Funtsean, bost txarteleko serieak erakutsi behar zaizkio haurrari, hizki handiekin idatzita eta kategoria berari dagozkionak (adibidez: giza gorputzaren zatiak, koloreak, animaliak...), azkar, egunean hiru aldiz. Haren irakurketa-metodologiaren oinarria da haurrari hitzen txartelak (BIT) erakustea, azkar, egunean hiru aldiz, kategoriatan antolatuta eta bost kategoriatan.

Ikaskuntzak bost fase ditu:

- ★ Lehen fasea: hitzak
- ★ Bigarren fasea: Hitz- bikoteak
- ★ Hirugarren fasea: Perpaus bakunak
- ★ Laugarren fasea: Esaldiak
- ★ Bosgarren fasea: Ipuinak

Atal hau amaitzeko, metodologiari dagokionez, beheago fase bakoitza zen den eta fase bakoitzean nola eta noiz jardun azaltzen da. Horrez gain, metodo horrekin zerikusia

duen programazioa proposatzen da. Programazio hori LHko 1. zikloan erabiltzeko diseinatuta dago.

5. METODOLOGIA

Graduko lau urte hauetan eta hainbat ikastetxe eta ikasturtetan praktikak egin ondoren, konturatu naiz irakurketa eta idazketa modu tradizionalen irakasten direla, eta ondorioz, etorkizunean ikasle askok ez dutela interesik irakurketan edo idazketan. “Kode idatziaren irakaskuntzaren gaia izan da ikasleei irakurtzen eta idazten irakatsi behar izan dieten hainbat eta hainbat irakasleren eta Haur Hezkuntza zein Lehen Hezkuntza orientatzen dutenen kezka nagusienetako bat. Kezka, metodologia printzipio psikopedagogikoetan oinarritzea izan da. Bi orientabide izan dira nagusi irakurtzen hasteko metodologiaren arloan, biak ere argudio logikoz jantziak: ikuspegi sintetikoa, batetik, eta analitikoa, bestetik. Ukatu beharra dago metodologia sintetikoa zaharkitua denik eta analitikoa alde baterako moda besterik ez denik” (Ruiz Bikendi, 2009, 238. orr). Hori dela eta, ikasgelan dagoen arazo hori kontuan hartuta, hori izan da lan hau garatzeko nire motibazioa.

Haurrei irakurtzen eta idazten irakasteko alternatibak daude. Acrbio-k (2017) aipatzen duen bezala, normalean, eskoletan metodo silabikoarekin egiten dugu topo. 2.3.2 atalean azaldu den bezala, metodo honetan, bokalak irudien bidez erakusten dira. Hori irakatsi ondoren, silabak sartzen dira (ma, me mi, mo eta mu). Silabak ikasi dituztenean silaba zailagoak sartzen dira. Ikasleak silaba horiek ahoskatzeko gai direnean, alderantzizko egitura dutenak (al, el, il, ol eta ul) erakusten zaizkie. Azkenik, diptongoak, triptongoak, lau letra eta silaba mistoak dituzten silabak erakusten dira.

Metodo hori ez da oso neketsu; izan ere, ez dira baliabide asko falta hori praktikatzeko, eta, neurri batean, haurren autonomia bultzatzen du, ikasleek berek laguntzen baitiete beste batzuei ikasten eta idazten. Baina ikasgelan asko erabiltzen den metodoa den arren, desabantailak ere baditu; esate baterako, monotonoa eta aspergarria izan daiteke; azken batean, ikasleek modu mekanikoan eta errepikakorrean ikasten dituzte silabak, eta horrek ez die elkarri eragiten ikaskuntzari (Acrbio, 2017).

Gainera, ikasleak, metodo horrekin, ez dio zentzurik emango testu bati, eta baliteke denborarekin ulermenean zailtasunak izatea; izan ere, metodo silabikoarekin, ikasleak silabak zuzen irakurtzen eta idazten baino ez du egiten.

Metodologiari dagokionez, Doman metodologian jarriko da arreta. Proposamen nagusia irakurketa-idazketa metodo alternatibo batean oinarritzen da. Familientzat da, etxean irakurketa-idazketa seme-alabekin landu ahal izateko eta, hartara, irakurketa eta idazketa goiztiarrenak sustatzeko. Jarduera hauek Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta daude, LHko 1.kurtsorako nahiz eta haur txikiagoei zuzenduta egon daitezkeen. Bestalde, nire

bigarren proposamena, ikasgelan garatzeko diseinatuta dauden jarduerak izango dira, “erosotasun-eremutik” ateratzeko eta ikasleen artean benetako garapen positiboa duten alternatibak bilatzeko. Jarduera horiek lehen zikloan (Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailan) egiteko diseinatu dira. Helburu horiez gain, jarduera horien bidez ikasleak motibatzea lortu nahi da. Jarduerak banakako lanerako pentsatuta daude. Banakako jarduerak dira, ikasle bakoitzak bere lana egin dezan. Jarduerak horrela pentsatuta daude; izan ere, Fons-ek (2004) aipatzen duen moduan, lan indibidualak, zeregin jakin bati aurre egitea bezala ulertuta, asko balio du ebaluaziorako, batez ere hasierako ebaluaziorako. Jarduera indibidual mota horrek aukera ematen du proposamenak ikasle bakoitzaren ezaugarrietara egokitzeko, bai mailari bai lan erritmoari dagokienez, eta inor ez da diskriminatua sentitzen. Horrela irakurketa- idazketan ikaskuntzan ikasleari lagunduko dion metodologia konstruktibista lortuko da.

Jarduera guztiak nola egin, noiz eta non egin azalduko da baita ebaluazioa eta horretarako behar den material guztia ere. Lehen esan den bezala, jarduerak adin edo ziklo baterako badira ere, beste adin edo ziklo batzuetan erabili ahal izango dira beti.

5.2 DOMAN METODOA

Glenn J. Domanek mundu osoko hurrekin ikertu zuen ea irakurtzen irakasteko alternatibak dauden (Doman, 2009). Gainera, konturatu zen metodo silabikoa ez zela egokiena, eta haurrak, txiki-txikitatik, gai direla letrak eta hitzak ezagutzeko, handiak badira. Hortik sortzen da metodoa. Metodo hori haurraren beharretara eta ezaugarrietara egokitzen joan daiteke hitzak irakurtzen doazen heinean. Hau da, malgua da, eta, batez ere, oso dibertigarria izan daiteke, haurrek joko gisa ikusiko dutelako. Lehen aipatu den bezala, metodo honek 5 fase ditu. Eta fase horietako jardueren helburua ikusmen- eta entzumen-estimuluak garatzea da, adimen “BITen” bidez.

Metodo honetako jardueretarako, “Inteligentziako BITAK” erabiliko dira, BITak zer diren jakiteko, jarraian informazio agertuko da:

Irudi handi, argi eta ongi definituen bidezko informazio-unitateak dira. Ikusizko estimuluak dira, entzumen-estimuluekin batera.

BIT-en helburu nagusia adimena garatzea da, hau da, egoera berrien aurrean eraginkortasunez jarduteko gaitasuna. Portaera hori burmuinari esker gertatzen da, ezagutza berriak iraganeko esperientzien datuekin (sinapsia) erlazionatzeko gai baita.

Ezagutza zentzumenen bidez hartzen ditugun inguruneko estimuluetan oinarritzen da, eta gure oroimenean irauten dute etengabe eta batez ere adin txikikoan agertzen badira.

Metodo hori kategoriatan lantzen da, eta kategoria horiek gutxieneko irudi erlazionatuak eta jakintza-arlokoak biltzen dituzte.

BIT-ak haurraren ingurunetik abiatzen dira, eta ematen duten informazioak haurraren ingurunera egokitu behar du.

1. Koadroa. Zer dira BIT-ak Acrbio-ren arabera.

BIT horiekin estimulu sensorialak garatzea lortuko da. BITak hainbat modutan egin daitezke, bai paperean, bai kartoi mehean, bai ordenagailu batean. Hori aldatu egiten da haurraren adinaren arabera. Adibidez, urte bateko haurrei buruz hitz egiten bada, kartoi meheak eta papera erabiliz, baina adin handiagoko haurrei buruz hitz egiten bada, arbela erabil dezakegu haiek idatz dezaten, hondarra ere erabil daiteke, hatzekin letrak marraz ditzaten... aldagai infinituak.

Fase bakoitzean hainbat eremu landuko dira, eta horiek beti egongo dira elkarrekin lotuta. BITak kategoriatan (landuko diren multzo hitzak besteak beste, etxeko objektuak, fruituak, koloreak...) antolatuta daude, haurrak haien arteko erlazioak ezar ditzan.

Materiala prestatu eta biltegitratzea

- Nahikoa BIT izan behar ditugu gai desberdinetatik prestatuak, hala nola sukaldea, eskolako materiala, frutak...
- BITak gordetzeko orduan, eremu estrategikoetan gorde ditzakegu, hau da, sukaldean BITak baditugu, material hori sukaldean gorde dezakegu, haurrak identifika dezan.
- BITen irudi eta letrek haurraren arreta erakartzeko bezain handiak izan behar dute.
- Hobe da txartelek fondo zuria eta hitz gorria izatea; horrela, haurraren arreta erakartzen da.

Saioak nola antolatu

- Saio bakoitza egunean hiru aldiz errepikatu behar da. Kontua ez da BITak haurraren aurrean denbora luzean egotea. Hobe da hitzak irakurtzea, haurrak haiekin harremanak izan ditzan eta batzuetan hitz bera errepikatu ahal izan

dezan, baina ezin da denbora askorik egon; egunez hiru aldiz irakatsiko zaizkio hitz horiek.

- Eguneroko errutina bat ezarri behar da. Eta egunean hiru une ezartzea saioak egiteko. Orduak errespetatzen saiatu behar da.
- Lehen esan bezala, BITak etxean zehar banatzen badira, horrek lagunduko du saioa etxeko edozein lekutan hasten.

2. Taula. Bost egunetako plangintza

1.EGUNA	5 hitz erakutsi egiten dira, normalean ohiko (hurbileko) hitzak izaten dira. <i>Bere izena, aita, ama...</i>
2.EGUNA	Aurreko eguneko 5 hitzak eta beste 5 hitz berri erakutsiko dizkiogu, hau da, 10 hitz.
3.EGUNA	Aurreko 15 hitzak eta beste 5 hitz erakutsiko dizkiogu.
4.EGUNA	Aurreko 15 hitzak eta 5 hitz berri erakutsiko dizkiogu
5.EGUNA	Egun horretatik aurrera, 25 hitz erakutsiko ditugu, baina 5 hitz beti izango dira berriak. Hainbat erataria egin daiteke, adibidez, 25 hitzetatik talde bakoitzeko hitz bat ezabatuz joan eta talde horietako hitz berri bat sartuz joan, edo talderik zaharrena ezabatu eta hitz-multzo berri bat sartu.

5.2.1 Planifikazioa

Doman metodoari buruzko lan-proposamena aurkeztuko da hurrengo lerroetan. Fase bakoitzeko astebeteko plangintza izango da, baina, lehen azaldu den bezala, ez da gomendatzen hurrengo fasera pasatzea 150 hitz ikusi gabe. Beraz, hurrengo diseinua astebete baten adibidea izango da. Metodoarekin jarraitzeko, plangintza hori behar adina aldiz errepikatu beharko da 150 hitz egin arte.

Hitz multzo guztiak topatu daitezke 2.eranskinean; hitzak imprimatu daitezke; metodo honetan argazkiak ez daude, baina nahi izanez gero, hitzei argazkiak jarri ahal zaizkie. BITS-ak moztu daitezke edo, erditik tolestu, horrela, alde batetik, hitza egongo da eta, beste aldetik, marrazkia. Irudiek hitzak memorizatzen eta esanahia ematen laguntzen dute. Planifikazioa, 1.eranskinean topatu daiteke.

5.3 KLASEAN AURRERA ERAMATEKO JARDUERAK

Atal honetan, hiru jolas-jarduera azalduko dira, ikasgelan egin ahal izateko. Jarduera horiek ikasle bakoitzak bere materiala izan dezan diseinatuta daude. 3 jardueren garapena azalduko da: nola erabili ikasgelan, zer material erabili, nola eraiki baliabideak, zer helburu lortu nahi ditugun eta nola ebaluatu jarduera. Jarduera horiek ikasgelan, Lehen Hezkuntzako

lehenengo zikloan garatzeko dira. Jarduera horiek hitzak irakurtzea dute ardatz, baina, gainera, hitzak idaztea.

Baina jarduerak azaldu aurretik, garrantzitsua da jakitea zein diren helburuak eta zer ebaluazio egin behar diren eskola-curriculumari begira, ikasgelan landu behar denarekin zerikusia duten jarduerak diseinatu ahal izateko. (Beraz, ondoren, esparru eta Lehen Hezkuntzako ziklo honetan landu beharreko helburuak eta edukiak jarriko ditut) oso garrantzitsua delako kontuan hartzea, jarduerak eraginkorrak izateko eta benetan merezi izatea nahi badugu.

Edukiei dagokienez, Heziberriko LHko 5.multzoko edukiak kontuan hartuko dira (“Hizkuntza eta haren erabilerari buruzko hausnarketa”). Hona hemen jarduerak diseinatzerakoan erreparatuko diren edukiak:

1. Kalkoak eta hizkuntzen arteko transferentziak identifikatzea.
2. Idazketaren oinarrizko arauak behar bezala erabiltzea.
3. Soinu eta grafiek hizkuntzaren sisteman zer-nolako lotura duten jakitea.
4. Oinarrizko ortografia- eta fonetika-arauak.
5. Idazketa-arauak:
 - o Hitza, idazketa segmentatzeko oinarrizko baliabidea.
 - o Letrak: izenak eta fonemekiko duten egokitasuna.
 - o Idazketaren norabidea eta zentzua, linealtasuna, paper gaineko banaketa, hitzbanaketa.
 - o Letra larri eta xeheak.
6. Idazketaren arauak errespetatzearen aldeko jarrera izatea.

2. Koadroa. Heziberriko LHko 5. multzoko edukiak

Jarraian agertuko dira hiru jarduera desberdin (Arbela magikoa, fonologia ikasten eta nire koaderno) non plangintza bat egongo den irakurketa eta idazketa lantzeko. Jarduera hauek ikasleak bai irakurketan bai idazketan barneratzeko diseinatuta daude. Jarduera bakoitza nola prestatu eta nola landu azalduko da jarraian.

5.3.1 Arbela magikoa

Izenak dioen bezala, jarduera honetan arbel moduko bat egingo da. Arbel honetan irakurketa, idazketa eta kontzientzia fonologikoa landuko dira. Jarduera hau Instagram sare sozial batetik aterata dago eta jarduera honek aldaketaren bat badu ere, ez da berdin-berdina, @centroceemadrid-e(https://www.instagram.com/tv/B-b52JUi97L/?utm_source=ig_web_copy_link) diseinatua dago, non bere profilean jarduera gehiago aurki baitaitezke. Lehenengo ariketa honetan, ikasleek hitzak maiuskulaz idatzi beharko dituzte, errazagoa eta ezagunagoa izango zaielako.

❖ Behar den materiala:

- Plastiko DIN A4 (4. eranskina, 1. Irudia)
- Hitzak, hizkiak, argazkiak imprimatuta (4. eranskinean, 2,3 eta 4. irudia)
- Errotulki bat (beltza bada, hobeto)
- Itsasgarria
- Belkroa

❖ Prozedura:

Jarduera egiteko beharrezkoa izango da ikasle bakoitzak DIN A4 plastiko bat izatea. Ondoren, ikasle adina fotokopia inprimatu behar dira (4. eranskina, 1.irudia). Honen ostean, moztu eta ikasle bakoitzari bere hitzak emango dizkio irakasleak. (Gainera, 4. eranskina, 2., 3. eta 4. irudiak inprimatu beharko dira, irudiak, hitzak, letrak eta zenbakiak baitira). Ikasle bakoitzak bere ebakinak izango ditu, eta denek izango dituzte ebakin berdinak.

Amaitzeko, 4.eranskineko 1. irudiaren edukia plastikoan itsatsi beharko da, eta hitz horien aurrean belkroa jarriko dute hitz bat baino gehiago egin ahal izateko. Gainera, 4. eranskineko 2.irudiko hitz bakoitzari belkroa jarri beharko zaio.

Materiala prest dagoenean, erabiltzen has daitezke. Ikasleak irudi bat hartuko du, eta irudi horrekin lanean hasiko da. Lehenik, irudi horri dagokion hitza jarriko du; ondoren, letra hitz guztien artean irudiari dagokion hitza bilatuko du, eta hitzak dituen hizki guztiak jarriko ditu. Azkenik, errotuladore baten laguntzaz, ikasleak hitza plastikoaren gainean idazten saiatuko da.

❖ Nola landu klasean:

Lehenik eta behin, jarduera hau ikasle bakoitzak bakarka lan egiteko diseinatuta dago, beraz, lanean hasi baino lehen, irakasleak azaldu behar du lan indibiduala izango dela eta horretarako kontzentrazioa beharko dutela, hau da, gela giro indibidualerako prestatu beharko dutela. Hori lortu ondoren, ikasleari bere materiala ateratzeko eskatuko zaio eta orduan lanean has daitezke. Lehenengo egunetan bost hitz egingo dituzte, eta egunak igaro ahala hitz gehiago batuko dituzte.

Jarduera honek ez du zertan Hizkuntza ikasgaiari landu egin, edozein irakasgaiaren hasieran edo bukaeran erabil daiteke. Goizeko lehen orduan egitea gomendatzen da, eta 10-15 minutu irauten du. Horrela, irakasgaiari geratzen den denbora horretan kontzentrazioa mantentzea ere lortuko dute. Jarduera honekin ikasleek irudien eta letren arteko erlazioa ezartzen dute, letrak identifikatzen dituzte eta irakurtzen eta idazten ikasten dute.

Curriculumari erreparatuz, hauek izango lirateke landuko ditugun etapako helburuak eta jardueraren helburuak:

ETAPAKO HELBURUAK

- *Modu autonomoan gogoeta egitea hizkuntzen sistemei buruz, eta haien erabilera arauak aplikatzea testuinguruan, testuan, perpausean eta hitzean, bai eta testuak ulertzeko eta sortzeko prozesuetan ere, erabilera egokia, koherentea eta zuzena izan dadin, eta transferentziak positiboak izan daitezen.*
- *Norberak hautatutako idatzizko, ahozko nahiz ikus-entzunezko literatura-testu erreferentziazko gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua ulertzeko eta sentsibiltate estetikoan aurrera egiteko.*
- *Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntzetan eta ikasgaietan eskuratutako komunikazio-ezaguerak eta -estrategiak transferitzeko, eta norberak konfiantzaz erregulatu ahal izateko hizkuntza-ikasketak.*

JARDUERAREN HELBURUAK

- Irakurtzen hastea, hurrengo saioetan bakarka lan eginez beste material batekin lan egin ahal izateko.
- Hitz berriak idazten hastea, zer hitz idatzi nahi duten hautatuz, motibazioa ez galtzeko.
- Fonologian sartzea, hitzak ozenki errepikatuz beraiek fonologia desberdinaz ohartzeko.
- Irudiak hitzekin erlazionatzen jakitea, materiala beraiek erabiliz, ikaskuntzan eraginkortasun handiagoa izateko.
- Silaben kontaketa barneratzea, oso modu oinarritzkoan, hitzekin zerikusia duten beste esparru batzuk lantzeko.

3. Koadroa. Jardueraren eta etapako helburuak

5.3.2 Fonologia ikasten

Jarduera honek irakurketan hasteko balio du. Erabilera anitzeko materiala da, modu askotara erabil daiteke. Jarduera honetan silaba zuzenak, alderantzizko silabak eta silaba trabatuak landuko dituzte. Gainera, silabak edo letrak idazteko eta zenbatzeko ere erabil daiteke. Jarduera hau “Hazi hesi Hasi”-gumroad.com (<https://gumroad.com/hazihezihasi>) izeneko web orritik aterata dago.

❖ Behar den materiala:

- 5. eranskineko 1., 2., 3., 4., 5., 6., 7., 8., 9. eta 10. irudiak inprimatu.
- Errotuladore fin bat.

❖ Prozedura:

Jarduera egiteko beharrezkoa izango da aurretik aipatutako irudiak inprimatuta izatea. (5. eranskinean behar den material guztia dago). Inprimatu eta ebaki besterik ez da egin behar,

eta, ahal bada, plastifikatu, materialak gehiago iraugo baitu. Behin materiala prestatuta, eta ikasle bakoitza bere materialarekin, lanean hasteko ordua da. Landuko dutenaren arabera, silaba zuzenak, zeharkakoak edo trabatuak, ikasleak fitxa bakoitza bete beharko du, silaba egokiak jarriz eta ahoskatuz.

❖ Nola landu klasean:

Jarduera honetan silaba zuzenak, zeharkakoak eta trabatuak landuko dira. Beraz, astero silaba-mota bat landu daiteke. Hala, ikasle bakoitzak bere aldetik lan egin arren, ikasle guztiak batera joango dira. Aurreko jardueran esan dudan bezala, ideia ona da eskola-hasieran horrelako jarduerak egitea, eta emaitza onak eman ditzake.

Baina, kasu horretan, ondo legoke jarduera hori eskolako azken minutuetan egitea; hartara, ikasleek ulertuko dute une horretan irakurketa-idazketa ordua dela. Edo beste aukera bat izan daiteke, ikasgelako amaieran ikasleak egin beharreko lana amaitu duenean; kasu horretan, materiala atera eta ikasteko aukera izango du. Ariketa honen bidez, ikasleak silaba trabatuetan hasten dira fonologiarekin, agian irakurketa zailena izango da, ahoskera ona.

Curriculumari erreparatuz, hauek izango liriteke landuko ditugun etapako helburuak eta jardueraren helburuak:

ETAPAKO HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none">→ <i>Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, bai eta haien edukia nahiz forma modu kritikoan interpretatzea ere, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko.</i>→ <i>Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntzetan eta ikasgaietan eskuratutako komunikazio-ezaguerak eta -estrategiak transferitzeko, eta norberak konfiantzaz erregulatu ahal izateko hizkuntza-ikasketak.</i>
JARDUERAREN HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none">→ Dauden silabez jabetzea (zuzenak, trabatuak eta alderantzizkoak), hitzak osatzeko ematen zaizkien letrekin jolastuz.→ Ikaskuntza prozesu ona izateko, irudia hitzarekin lotzen jakitea, hitz zuzena idatziz.→ Sor daitezkeen silaba guztiak ikertzea eta pentsatzea, eskaintzen diren letrekin, hitz berri gehiago sortzeko.

4. Koadroa. Jardueraren eta etapako helburuak

5.3.3 Nire koaderno

Ariketa honetan, orri inprimatuak dituen koadernotxo bat egingo da, ikasleak idazketa aztertu eta indartzeko. Koadernotxo honetan hitz solteak idaztea landuko da lehenik. Hitz bat agertuko da eta ondoan bi irudi. Ikasleak hitz horri dagokion irudia koloreztatu beharko du. Gero, irudiaren ondoan dagokion hitza idatzi beharko du. Landuko den bigarrena esaldien idazketa izango da. Ikasleak agertzen den perpausa kopiatu beharko du.

Idazketa lantzeko, karratu txikien txantiloak erabiliko dira. Horrela, ikasleak karratuen barruan idatzi beharko ditu letrak, eta letra biribila eta tamaina berekoa egiten inplikatzeko lortuko da. Badira beste teknika batzuk ere, hala nola, bi lerro paraleloren artean idaztea, baina, agian, teknika hori zailagoa izango da. Beraz, koadernotxo txikiak erabiliko dituzte ikasleek oraingoz. Ariketa honetan, letra xehez idatzi beharko dute, idazteko arauen arabera letra larriz idatzi behar denean izan ezik. Beste jarduerekin ez bezala, jarduera honetan beste urrats bat egingo dute idazketarantz, eta letra xehean hasiko dira. Aurreko jardueretan maiuskulaz idatzi dute, idazteko modurik errazena delako eta lehen barnetatzen dutena delako.

❖ Material beharrezkoa:

→ Inprimakiak → (6. eranskina)

❖ Prozedura:

Jarduera egiteko beharrezkoa izango da eranskinetako liburuxka inprimatua izatea. Ikasle bakoitzak bere idazketa-koaderno izango du, beste jardueretan bezala.

❖ Nola landu ikasgelan

Koaderno laburra da, ikasleak idazketan aurrera egin ahala zailtasun handiagoa izan beharko baitu. Aurreko materialak bezala, Hizkuntza irakasgaiari erabili ahalko da. Ikasgelako baliabide gisa balio dezake, jolas-jarduera osagarri gisa baino gehiago. Egunero minutu batzuk idaztea eta irakurtzea komeni da. Beraz, egunero orri bat egingo da koadernotik.

Curriculumari erreparatuz, hauek izango lirateke landuko diren etapako helburuak eta jardueraren helburuak:

ETAPAKO HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> → Bai ahoz eta bai idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean adieraztea eta elkarri eragitea, eta horretan, errespetua, kooperazioa eta espiritu kritikoa hartzea oinarri, zenbait komunikazio-premiari modu eraginkorrean erantzuteko. → Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntzetan eta ikasgaietan eskuratutako komunikazio-ezaguerak eta -estrategiak transferitzeko, eta norberak konfiantzaz erregulatu ahal izateko hizkuntza-ikasketak.
JARDUERAREN HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> → Idazketa lantzea, bakarka, etorkizunean horretaz baliatu ahal izateko. → Irudiari dagokion hitza ondo idatzi, txantilo baten laguntzaz, idazkera xeheago batean hasteko. → Letra larriak eta xeheak noiz jarri behar diren jakitea, idazkera zuzenagoa egiteko idazketa-arauetan pentsatuz.

5. Koadroa. Jardueraren eta etapako helburuak

Oharra:

Koadernotxo hau nik diseinatu dut. Esaldien kaligrafia egiteko aplikazio bat erabili dut (https://www.mclibre.org/consultar/primaria/copia2/index.php?language=es_ES), hain zuzen ere. Aplikazio hau doakoa da eta koadernoan agertzen diren antzeko fitxak egin daitezke. Hainbat letra-mota ditu, pautak desberdinez gain. Nire kasuan, lehen aipatu dudak bezala, lauki-sarea eredu erabili dut, eta letra mota “masailera” izan da.

Atal honekin amaitzeko, argi utzi nahi dut gradu-amaierako lan honetan aurkituko dituzuen baliabide guztiak nik eginak direla. Egia da jarduera batzuk beste pertsona batzuek diseinatutakoetan oinarritzen direla, baina pertsona horiek jarduera bakoitza aurkeztu dudak unean aipatu dira.

6. EBALUAZIOA

Ebaluazioa edozein irakaskuntza- eta ikaskuntza-proposamenen funtsezko zatia da (Aranda, 2003 in Andreu, 2013). Ikasleengan zer ebaluatuko den pentsatzen denean, gure proposamenaren helburua dator burura. Nire proposamenaren helburua irakurtzen eta idazten ikastea izango litzateke eta horretarako hiru ebaluazio mota egingo dira. Lehenengoa, hasierako ebaluazioa; bigarrena, azken ebaluazioa, eta hirugarrena, ebaluazio hezigarri bat non egunero ebaluatuko den ikasleen zereginak oztupoak edo gabeziak detektatzeko.

Alde batetik, hasierako ebaluazioarekin ikasle bakoitza zein ikasketa-puntutan dagoen ikusiko da. Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan jada badakite letrak identifikatzen eta hitz bat edo beste irakurtzen, edo baita trabatutako edo zeharkako silabak behar bezala

ahoskatzen ere, baina baliteke ikasle batzuek oraindik ezagutza hori ez lortzea, beraz, ebaluazio horrekin gabezia horiek identifikatuko ditu (ikusi 7. eranskina).

Bestetik, azken ebaluazioan, (ikusi 8. eranskina) asmoa ez da ikasleak kalifikazioekin etiketatzea eta kalifikazioak ranking batean ikustea. Asmoa da ikustea ea teknika edo jarduerak merezi izan duten eta benetan lortu den helburu nagusia: “erosotasun-eremutik” ateratzea eta ikasleengan garapen positiboa duten alternatibak bilatzea. Proposatutako jarduera guztiak bukatutakoan egingo da azkeneko ebaluazioa eta irizpide nagusia izango da ea ikaslea gai den esaldiak edo ipuinak irakurtzeko eta idazteko.

Azkenik, ebaluazio hezigarria saio bakoitzaren ondoren egin behar da egunero. Horrela, ikasle bakoitzak saio bakoitzean izan ditzakeen oztopoak diagnostikatu eta aurrerapena ebaluatu nahi da. Ebaluazio honen bidez, ikaskuntza prozesua aldatu nahi da, ikasleek ematen dituzten erantzunen arabera. Hala, informazioa lortuko da egunero, eta horrek erabakiak hartzen, doikuntzak egiten edo prozesua gauzatzen irakasleari lagunduko dio. Koaderno baten laguntzaz, saio bakoitzaren ondoren oharrak hartuko dira. Eta ohar horiek kontuan hartu beharko dira hurrengo saioan. Arandak dioenez (2003), behaketa da ebaluazioetarako erabiltzen den estrategia nagusia.

7. ONDORIOAK

Lan hau amaitu eta gero, konturatu naiz metodo asko eta desberdin daudela idazketa eta irakurketa irakasteko, baita gelan dituzten aplikazioak ere. Horregatik, teorikoki sakondu ondoren, eskuragarriagoa iruditzen zait irakurketaz jabetzea idazketaz baino, irakurketarekin harreman handiagoa baitute, ikasleentzat bisualagoa izanez.

Lanean zehar aurkeztu ditudan jarduerak ezin izan ditut egin, beraz, ezin izan ditut praktikarekin zerikusia duten ondorioak atera. Dena den, egoera horren aurrean, jarduera horiek gauzatzean sor daitezkeen desabantailak eta abantailak aipatuko ditut. Lehenik eta behin, aurkitu dezakegun lehenengo arazoa motibazio falta izan daiteke, nahiz eta jarduera berritzaileak izan eta ez ohikoak. Beraz, hori saihesteko, garrantzitsua da ikasleak motibatzea eta jarduerak dinamikoki aurkeztea, jolas bat dela ikusaraziz.

Bigarrenik, jarduerak ikasgelan eginez gero, gerta daiteke ikasle batzuek denbora gutxiago behar izatea irakurketa edo idazketa jarduerak gauzatzeko, eta beste ikasle batzuek denbora gehiago behar izatea; hori oso ohikoa da LHko ikasgelan. Kasu horretan, komeni da ikasle bakoitzaren kontrola eramatea; izan ere, ikasleren bat gai ez dela ikusten badu edo jarduera egitea zaila bazaio, baliteke jarduerarekin ez jarraitzea eta ondorioz, porrot egitea.

Jarduerak arrakastatsuak izan daitezen, garrantzitsua da jarduera horiek zenbait astetan egitea. Bestela ez da emaitzarik lortuko. Gainera, ez da ahaztu behar jarduera osagarriak

direla, hau da, jarduera horiekin bakarrik ez dela beharrezkoa. Baliabide gehiago behar dira irakurketa eta idazketa prozesua ahalik eta gehien ikasteko eta barneratzeke.

Abantaileri erreparatuz, uste dut Doman metodoa aplikatzeak fruitua eman dezakeela eta lehen hezkuntzako laguntza handia izan daitekeela. Metodo honen bidez, ikasleak irakurketa- eta idazketa-ezagutza batekin ikasgelara iristea lortuko dela uste dut.

Beste ondorioetako bat da Doman Metodoa gehiago landu beharko litzatekeela ikastetxeetan, frogatuta baitago, bai etxean edo ikastoletan, haurrek hitzak ikastea lortzen dutela eta zenbat eta lehenago irakurri, orduan eta lehenago garatuko dituzte idazteko behar diren gaitasunak, eta zenbat eta hobeto irakurri, orduan eta errazagoa izango zaie zeregin hori. Horregatik, lehenbailehen sustatu behar dira idazketa eta irakurketa. Gainera, ezin dugu ahaztu metodo honen arabera haurrek berain kabuz gauzatzen dituztela jarduerak eta horrek lanean jarraitzera eta egunetik egunera gehiago ikastera bultzatzen dituztela.

Lan gogorra da, material asko prestatu behar baita, baina uste dut merezi duen bitartean materiala prestatuta gutxienezkoa dela.

8. HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

Gorago esan dudana bezala, proposamen didaktikoa ezin izan dut aurrera eraman, beraz, (aipatutako jarduerak eginez gero, nire ustez lor daitezkeen abantailak aurkeztuko ditut, eta geroago) nire esperientziaren inguruko hausnarketa egingo dut gai honen inguruan.

Nire esperientzian oinarrituta, eskola gehienetan metodo foniko-fonetikoa erabiltzen da. Onurak izan arren, modu egokian aurrera eraman behar da, eta uste dut gaur egun geletan egiten diren fitxak ez direla eraginkorrak kalkoetan, hizkuntzen arteko transferentzien identifikazioan eta grafiek zer-nolako lotura duten jakitean oinarritzen baitira. Helburu horiek lortzeko, gradu amaierako lan honetan proposatutako jarduera hauek egin daitezke: "Arbela magikoa", "Doman Metodoa" eta "Nire koaderno". Jarduera horiek lagungarriak izan daitezke irakurketaren eta idazketaren hasieran, baina jarduera osagarriak besterik ez dira, eta beste era bateko jardueren bidez landu beharko lirateke.

Bukatzeko, uste dut metodo bat beste bat baino egokiagoa izan daitekeela, baina metodo hori gauzatzeko moduan jarri behar da arreta. Nire lehen praktiken kasuan, metodoa ondo aukeratuta zegoen (foniko- fonetikoa), baina aurrera eramateko modua ez zen egokia ikasleentzat korapilatsua zelako eta haien artean desberdintasun asko sortzen zirelako - adibidez, lan egiteko erritmoak oso desberdinak ziren-. Eta hau da ikastetxe gehienetan dagoen egoera, baliabideak ez direla egokiak, hortaz, uste dut ikasleei esperientzia motibatzaileagoak eskaini ahal zaizkiela eta ikasleen ikaskuntzan eragina duten metodologia edo jarduera dibertigarriak erabili ahal direla.

9. BIBLIOGRAFIA

- Acrbio (2017, urria, 23). Cuadro comparativo de los Métodos de Lectoescritura más utilizados en la escuela. *Imágenes educativas*. Hemendik berreskuratuta: <https://www.imageneseducativas.com/cuadro-comparativo-los-metodos-lectoescritura-mas-utilizados-la-escuela/>
- Andreu, I. (2013). *Método doman: propuesta de iniciación a la lectura en Educación de Primaria* (gradu amaierako lana). Valencia: Universidad Internacional de La Rioja.
- Ángeles Veladez, M., Gómez Zermeño, M., eta García Mejía, I. (2013). Diseño de un recurso educativo multimedia basado en la Metodología Doman para mejorar la enseñanza de la lectura en el nivel preescolar. *Revista DIM*. Hemendik berreskuratuta: <https://www.raco.cat/index.php/DIM/article/view/275961/363902>
- Aranda, A.M. (2003). *Didáctica del conocimiento del medio social y cultural en educación infantil*. Madrid: Síntesis.
- Doman, G. (2009). *Cómo multiplicar la inteligencia de su bebé. La Revolución Pacífica*. Madrid: EDAF.
- Fons Esteve, M. (2004). *Leer y escribir para vivir*. Barcelona: La Galera, S.A.
- García Rodríguez, A. eta Gómez Díaz, R. (2016). "Contenidos enriquecidos para niños o las nuevas formas de leer, crear y escuchar historias: una propuesta de clasificación". *Revista chilena de literatura*. 94, 173-195.
- González López, M. (2018). *Actividades para aprender a leer y a escribir en español* (libro de texto). Chihuahua, México. Hemendik berreskuratuta: <https://uach-mx.academia.edu/MarielaGonz%C3%A1lezL%C3%B3pez>
- González López, M. Machin Mastromatteo, J. eta Tarango, J. (2019). *Evaluación diagnóstica de habilidades de pensamiento e informativas para niños de primer grado de educación primaria*. Hemendik berreskuratuta: https://zenodo.org/record/3364193#.YFR3ka_0nIV

González López, M. (2020). Habilidades para desarrollar la lectoescritura en los niños de educación primaria. *Revista Estudios en Educación*, 3(4), 45-68.

López Reyes, M. eta Dionisio Mora, J. (2016). *La lecto-escritura utilizando el método Fonico, Analítico, Sintético (FAS)*. Hemendik berreskuratuta: file:///C:/Users/Hp/Downloads/Metodo_FAS.pdf

Negrete, A. (2015). Metodologías de aprendizaje: Método Doman (blog baten mezua). Hemendik berreskuratuta: <http://maestraespecialpt.com/metodologias-de-aprendizaje-metodo-doman>

Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico (2017). *Assessment and analytical framework: science, reading, mathematic, financial literacy and collaborative problem solving*.

Orientacion Andujar. (2017). Método Glenn Doman para aprender a leer, una alternativa al método silábico. Hemendik berreskuratuta: <https://www.orientacionandujar.es/2017/07/01/metodo-glenn-doman-aprender-leer-una-alternativa-al-metodo-silabico/#:~:text=El%20m%C3%A9todo%20Doman%20est%C3%A1%20dise%C3%B1ado,y%2C%20sobre%20todo%2C%20divertido.&text=Afirma%20que%20un%20beb%C3%A9%20puede,hablar%2C%20siguiendo%20el%20mismo%20proceso>

Real Academia Española (RAE). (2001). Diccionario de la lengua española (22.a ed.). Hemendik berreskuratuta: <http://www.rae.es/>

Ruiz Bikandi, U. (2009). *Bigarren Hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Silva, C. (2019). ¿Qué es leer? La dislexia. Hemendik berreskuratuta: <https://www.ladislexia.net/aprender-a-leer/>

Teberosky, A. (1996). "Glossa sobre el coneixement de l'escritura". Ágora. VIII Jornades de la llengua a l'ensenyament obligatori. L'Hospital del Lobregat: Fundació Pineda.

ERANSKINAK

Eranskin hauetan azaltzen dira hainbat definizio, lanaren faseak, material desberdina, hainbat libururen bibliografia eta ebaluazio orriak. Material honek lanean azaldutako jarduerekin zer ikusi du eta beharrezkoa izango da jarduerak egin ahal izateko.

ERANSKINAK	33
1.Eranskina	34
2.Eranskina	58
3. Eranskina	74
4.Eranskina	75
1.Irudia	75
2. Irudia	76
3. Irudia	78
4.Irudia	79
5. Eranskina	80
5.Irudia	80
6.Irudia	81
7. Irudia	82
8. Irudia	84
9. Irudia	86
6. Eranskina	89
7. Eranskina	110
8. Eranskina	114

1.Eranskina

Eranskin honetan, Doman Metodoaren planifikazio bat azalduko da. Planifikazioa bost fasetan dago banatuta eta fase bakoitzean edukiak daude.

1. FASEA - HITZAK

Fase honekin hasi baino egun batzuk lehenago, umeari jakinaraziko diogu jolas batean jolastuko garela.

Lehenengo fase honetan, oso garrantzitsua da haurrak interesa sentitzea eta ondo pasatzea; bestela, baliteke dinamika honekin gure helburua ez lortzea. Horregatik, oso garrantzitsua da BITak irakasteko lehen egunean azkar egitea, eta hitz bakoitzarekin denbora askoan ez gelditzea.

Hitz-kategoria batekin amaitzen dugunean, minutu batzuk utzi beharko ditugu hurrengo hitz-kategoriarekin hasteko. Oso garrantzitsua da, halaber, saioa nola amaitu. Oso ondo egin duela jakinarazi behar diogu, eta horrela jarrai dezala, hau da, umea goraiatu.

1.EGUNA

Familia taldearekin hasi gara eta lehenengo bost hitzak ikusiko ditugu.

- Orduak: (11:30-11:45) → FAMILIA (haurra, aita, ama, anaia, arreba)
- (16:30- 16:45) → FAMILIA (haurra, aita, ama, anaia, arreba)
- (19:30-19:45) → FAMILIA (haurra, aita, ama, anaia, arreba)

2.EGUNA

Fruta taldearekin hasiko gara eta atzoko bost hitzak gehi fruten bost hitz berriak ikusiko ditugu.

- Orduak: (11:30-11:45) → FRUTAK (marrubia, mandarina, sagarra, platanoa, meloia) eta FAMILIA (haurra, aita, ama, anaia, arreba)

(16:30- 16:45) → FRUTAK (marrubia, mandarina, sagarra, platanoa, meloia) eta FAMILIA (haurra, aita, ama, anaia, arreba)

(19:30-19:45) → FRUTAK (marrubia, mandarina, sagarra, platanoa, meloia) eta FAMILIA (haurra, aita, ama, anaia, arreba)

3.EGUNA

Animalien taldearekin hasi gara eta beste bi taldeko hitzak birpasatuko ditugu.

- Orduak: (11:30-11:55) → ANIMALIAK (tigrea, arraina, sugea, txoria, txerria) , FRUTAK (marrubia, mandarina, sagarra, platanoa, meloia) eta FAMILIA (haurra, aita, ama, anaia, arreba)

(16:30- 16:55) → ANIMALIAK (tigrea, arraina, sugea, txoria, txerria), FRUTAK (marrubia, mandarina, sagarra, platanoa, meloia) eta FAMILIA (haurra, aita, ama, anaia, arreba)

(19:30-19:55) → ANIMALIAK (tigrea, arraina, sugea, txoria, txerria), FRUTAK (marrubia, mandarina, sagarra, platanoa, meloia) eta FAMILIA (haurra, aita, ama, anaia, arreba)

4.EGUNA

Koloreen taldearekin hasiko gara eta atzoko hiru taldeak errepikatuko ditugu.

- Orduak: (11:30-12:00) → KOLOREAK (gorria, horia, arrosa, laranja, morea), ANIMALIAK (tigrea, arraina, sugea, txoria, txerria) , FRUTAK (marrubia, mandarina, sagarra, platanoa, meloia) eta FAMILIA (haurra, aita, ama, anaia, arreba)

(16:30- 17:00) → KOLOREAK (gorria, horia, arrosa,

laranja, morea), ANIMALIAK (tigrea, arraina, sugea, txoria, txerria), FRUTAK (marrubia, mandarina, sagarra, platanoa, meloia) eta FAMILIA (haurra, aita, ama, anaia, arreba)

(19:30-20:00) → KOLOREAK (gorria, horia, arrosa,

laranja, morea), ANIMALIAK (tigrea, arraina, sugea, txoria, txerria), FRUTAK (marrubia, mandarina, sagarra, platanoa, meloia) eta FAMILIA (haurra, aita, ama, anaia, arreba)

5.EGUNA

Gorputz atalak ikusiko ditugu, beti ere pasaden eguneko hitzak ikusiz.

- Orduak: (11:30-12:00) → GORPUTZ ATALAK (oina, ahoa, sudurra, hanka, besoa), KOLOREAK (gorria, horia, arrosa, laranja, morea), ANIMALIAK (tigrea, arraina, sugea, txoria, txerria), FRUTAK (marrubia, mandarina, sagarra, platanoa, meloia) eta FAMILIA (haurra, aita, ama, anaia, arreba)

(16:30- 17:00) → GORPUTZ ATALAK (oina, ahoa,

sudurra, hanka, besoa), KOLOREAK (gorria, horia, arrosa, laranja, morea), ANIMALIAK (tigrea, arraina, sugea, txoria, txerria), FRUTAK (marrubia, mandarina, sagarra, platanoa, meloia) eta FAMILIA (haurra, aita, ama, anaia, arreba)

(19:30-20:00) → GORPUTZ ATALAK (oina, ahoa,

sudurra, hanka, besoa), KOLOREAK (gorria, horia, arrosa, laranja, morea), ANIMALIAK (tigrea, arraina, sugea, txoria, txerria), FRUTAK (marrubia, mandarina, sagarra, platanoa, meloia) eta FAMILIA (haurra, aita, ama, anaia, arreba)

6.EGUN

Talde bat kenduko dut eta berri bat sartuko dut, eskolako materiala, hain zuzen ere. Baina beste era batean egin daiteke. Adibidez,

familiako bost hitzak aldatu eta bost berri sartu.

- Orduak: (11:30-12:00) → KLASEKO MATERIALA (arkatza, arbela, liburua, apala, zorrozkailla), GORPUTZ ATALAK (oina, ahoa, sudurra, hanka, besoa), KOLOREAK (gorria, horia, arrosa, laranja, morea), ANIMALIAK (tigrea, arraina, sugea, txoria, txerria) eta FRUTAK (marrubia, mandarina, sagarra, platanoa, meloia)

(16:30- 17:00) → KLASEKO MATERIALA (arkatza, arbela, liburua, apala, zorrozkailla), GORPUTZ ATALAK (oina, ahoa, sudurra, hanka, besoa), KOLOREAK (gorria, horia, arrosa, laranja, morea), ANIMALIAK (tigrea, arraina, sugea, txoria, txerria) eta FRUTAK (marrubia, mandarina, sagarra, platanoa, meloia)

(19:30-20:00) → KLASEKO MATERIALA (arkatza, arbela, liburua, apala, zorrozkailla), GORPUTZ ATALAK (oina, ahoa, sudurra, hanka, besoa), KOLOREAK (gorria, horia, arrosa, laranja, morea), ANIMALIAK (tigrea, arraina, sugea, txoria, txerria) eta FRUTAK (marrubia, mandarina, sagarra, platanoa, meloia)

OHARRAK:

Sei egunetik aurrera, 5 hitz aldatu beharko dira, bai ikusi dugun talde bateko bost hitz aldatuz, bai talde berri bateko bost hitz erantsiz. Planifikazio honetan, nahiago izan dut lehengo taldea kendu eta berria gehitzea ikasleak aspertu ahal direlako eta horrela motibatu ahal direlako. Baina lehen esan dudan bezala, 150 hitz ikusi arte ez da gomendatzen fasez pasatzea.

2. FASEA - HITZ-BIKOTEAK

Bigarren fasea hitz-bikotearekin hasiko dugu. Horretarako, lehen faseko lehen asteko hiztegia erabiliko dugu. Beraz, koloreak hiztegiarekin konbinatuko ditugu. Fase honetan, hitz-talde berriak agertuko dira plangintzan, baina hitz-talde horiek aste batzuk lehenago ikusi dira lehen fasean.

1.EGUNA

- Orduak: (11:30-11:45) → FRUTAK ETA KOLOREAK (marrubi arrosa, mandarina laranja, sagar gorria, meloi berdea , platano horia)

(16:30- 16:45) → FRUTAK ETA KOLOREAK
(marrubi arrosa, mandarina laranja, sagar gorria, meloi berdea , platano horia)

(19:30-19:45) → FRUTAK ETA KOLOREAK (marrubi arrosa, mandarina laranja, sagar gorria, meloi berdea , platano horia)

2.EGUNA

- Orduak: (11:30-11:45) → ANIMALIAK ETA KOLOREAK (arrain laranja, suge berdea, txori horia, txerri arrosa, tigre horia), FRUTAK ETA KOLOREAK (marrubi arrosa, mandarina laranja, sagar gorria, meloi berdea , platano horia)

(16:30- 16:45) → ANIMALIAK ETA KOLOREAK (arrain laranja, suge berdea, txori horia, txerri arrosa, tigre horia), FRUTAK ETA KOLOREAK (marrubi arrosa, mandarina laranja, sagar gorria, meloi berdea , platano horia)

(19:30-19:45) → ANIMALIAK ETA KOLOREAK (arrain laranja, suge berdea, txori horia, txerri arrosa, tigre horia), FRUTAK ETA KOLOREAK (marrubi arrosa, mandarina laranja, sagar gorria, meloi berdea , platano horia)

3.EGUNA

